

## Ageriko batzarra

*Etxarri Aranatzan, 1999ko ekainaren 24an*

Etxarri Aranazko Kultura Etxean, 1999ko ekainaren 24an, arratsaldeko zazpi eta erdietan, hasi da Victoriano Huiziren *Manual de Gramática Bascongadaren* eta Aingeru Irigarai euskaltzainaren mendeurrenak ospatzeko Euskaltzaindiak deitutako ageriko batzarra.

J. Haritschelhar euskaltzainburuak, Fernando Flores, Etxarriko alkateak, P. Goenaga idazkariak, Andres Iñigo, Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariak, J. M. Sarustegi euskaltzainak, Jose Angel Irigarai urgazleak eta Joxemiel Bidador jaunak osatu dute mahaia. Hauxe gain, honako euskaltzain hauek bildu dira aretoan: H. Knörr, J. A. Arana, J. L. Davant, X. Diharce, X. Kintana, E. Larre, J. M. Lekuona, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin eta A. Urrutia. Euskaltzain urgazleen artean, J. L. Lizundia eta M. Ruiz Urrestarazu. Hauxe gainera, Sakanako eskualdeko zenbait alkate eta zinegotzi eta Etxarriko *Zirikatzen* elkarteko kide eta entzule andana bat. Nafarroako Diputazio/Gobernuko ordezkariarik ez da azaldu.

Ekitaldiari auresku batez eman zaio hasiera. Gero, Fernando Flores, herriko alkate jaunak hartu du hitza. Ospakizunaren nondik norakoak azaldu ditu. Historian zehar euskararen aldeko lanean nabarmendu diren pertsonak omentzea dela bileraren helburua. Bide batez, Euskaltzaindiak euskararen normalkuntzan egin duen eta egiten ari den lana goraiatu du alkateak.

Ondoren, J. Haritschlehar jaunak eskerrak bihurtu dizkio eta Euskaltzaindia bere batzordeen bidez garatzen ari den lanak aipatu ditu. Bestalde, bi omenduen garaia eta oraingoa alderatuz, gauzak zenbat aldatu diren gogorazti du.

Andres Iñigo jaunaren hitzaldia etorri da gero: “1923an Etxarri-Aranatzan egin ziren Euskal Jaien oroimenean”. Euskal jai haien helburuak zein ziren azaldu du: euskarari eustea, euskara balioestea eta euskara sustatzea. Etxarri puntu estrategikotzat hartu zuten garai hartan euskara berpizteko.

Hitzaldi honen ondoren Etxarriko gaiteroen emanaldi labur bat entzun ahal izan dute bilduek. Eta etenaldi honen ondotik Joxemiel Bidador filologoaren hitzaldia izan da: “Bitoriano Huizi, Etxarriko semea”. Huiziren bizitzako hainbat xehetasun eman ditu: bere apaiz lana eta apezpikuarekiko erlazioak, jesuitetan sartzea, Kuba, eta abar.

Huiziren gramatikari buruzko zertzelada batzuk eman ditu gero P. Goenagak: “Huiziren *Gramática Bascongada*”. Gramatikaren ezaugarriak eta iturriak aipatu ditu bereziki.

Bigarren omenduari, Aingeru Irigarairi, bi hitzaldi eskaini zaizkio. Lehenbizi, haren seme den J. A. Irigarai euskaltzain urgazleak hitz egin du. Haren solasgaia, “Aingeru

Irigarai gizarte zibilean barna". Aitaren bizitzaren ikuspegi berri bat eman du ikasketa garaietatik hasi eta ondoren egindako urratsak aipatuz, beti ere bizirik segitzen zuen gizarte zibil horren barnean, gizarte zibil hori gauzatzen ahaleginduz.

J. M. Satrustegi "Aingeru Irigarai, euskararen sustatzailea" gaiaz mintzatu da azkenik. Irigarai aldaketa garaian sortu zen. Aldaketok euskarari ere bazegozkion: euskara hiritar bilakatzen hasten da eta giro honen barnean kokatzen da Irigarai, langile aspergaitza eta eginarazle setatsua, akuilaria, hizlariaren hitzetan.

Azkenik, herriko abesbatzaren kantaldi atsegin eta arin bat entzuteko aukera izan dute bildutakoek. *Agur Jaunak* abestuz eman zaio amaiera ekitaldiari, gaueko bederatzia eta erdiak aldera.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*